# Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak bikoiztu ditu enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak IKTetan sartzeko

*Milioi 1 eurotik 2 milioi eurora igo da aurten aurkeztutako 1.950 eskaera artatzeko partida. Banako laguntza, bataz beste, 1.157 eurokoa izango da*

Lunes, 01 de agosto de 2011

Foru Erkidegoko enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak (IKT) sartzera zuzendutako diru-laguntzaren partida bikoiztea erabaki du gaur Nafarroako Gobernuak, deialdi honetan aurkeztutako 1.950 eskaera artatzearren.

Eskaera bakoitzeko bataz beste 1.157 euroko laguntza eman da (aurreko edizioan 1.000 euro); beraz, diru-laguntza horretako partidako hasiera bateko milioi bat euro bikoiztea beharrezkoa izan da, aurkeztutako eskaera guztiak artatzearren. Horrela, orain, partida 2 milioi eurokoa izango da.

Laguntza horien helburua da informazioaren gizartea garatzea eta Foru Erkidegoko garapen ekonomiko eta sozial bera bultzatzea. Era horretan, enpresetan negoziorako eredu eta antolakuntza-prozesu berriak sortzea erraztuko da, produktibitatean hobekuntza garrantzitsuak izatearekin batera